

KAZETARITZA LANBIDE IRRATI KRONIKA



**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

DBHko 3. mailarako materialak / Materiales para 3º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Kazetaritza lanbide

UNITATEAK: **Kazetaritza lanbide. Irrati-kronika.**
UNIDADES: De profesión, periodista. Reportaje.
You be the reporter. A digital story.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEA: Nerea Badiola
AUTORA:

KOLABORATZAILEAK: M^a Inmaculada Marcos, Maribi Apraiz, Marimar Pérez,
COLABORADORES: Iñaki Intxausti, Adela Fernández, Irene González eta
Hizkuntza eta Gizarte esparruko Bigarren Hezkuntzako
Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO


2008ko urria
Octubre de 2008

Zein da prentsaren garrantzia gaur egun? Imajinatzen duzue komunikabide gabeko mundurik? Ezin dugu ukatu bai kazetaritza idatziak bai ahozko kazetaritzak gaur egungo munduaren eraketa sozial eta politikoan erabateko garrantzia dutela. Inoiz, informazioa boterea dela entzungo zenuten; izan ere, askotan, indar fisikoaren aurrean ezagutza da gizakiek nagusitzeko duten bidea.

Zein irrati-kate entzuten duzue? Eta zuen etxekoek entzuten al dute irratiarik? Oraindik ere irratiak da albisteak zabaltzeko komunikabiderik merkeena eta azkarrena, telebista edo Internet iristen ez den lekuetara heltzen delako eta entzuten ari garenean beste zenbait jarduera ere egin ditzakegulako. Era berean, esan beharra dago tokian tokiko irratiak direla herriko gertaeren berri izateko komunikabiderik azkarrenak.

Informazioari dagokionez, bestalde, era objektiboan kontatu dezakegu edota, bestela, interpretatu eta iritzia eman. Hortik dator informazioak duen boterea: askotan entzuten duguna egia ukaezintzat hartzen dugu, baina gertatutakoaren kontaketa zehatza barik kazetariaren interpretazioa izan daiteke...

Euskarako unitate honetan, zuen institutuko edo herriko irratiarako IRRATI-KRONIKAK gauzatuko dituzue azken ekoizpen gisa: talde bakoitzak inguruko gertakizun baten berri (kirol-ekitaldia, kontzertua, istripua...) emango die institutuko beste ikasleei edota herriko biztanleei. Gaztelaniako ekoizpena, berriz, erreportajea izango da, kronikari loturiko gai bati edo libururen batean irakurritako gai bati buruzkoa.



0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa
1. LAN-SEKUENTZIA KRONIKA, NARRAZIO-GENEROETAKO BAT 1. jarduera. Narrazioak nonahi. 2. jarduera. Kroniken ezaugarriak zehazten. 3. jarduera. Egun, kronikak nolakoak eta norentzat. 4. jarduera. Kronikaren gaia erabaki behar dugu.
2. LAN-SEKUENTZIA GERTAERAK NOLA KONTATU AZTERTZEN 5. jarduera. Irrati-kroniken ezaugarriak. 6. jarduera. Nork eta zelan kontatzen du kronika? 7. jarduera. Informatu eta interpretatu. 8. jarduera. Zuen kronikaren ezaugarriak zehazten.
3. LAN-SEKUENTZIA KRONIKA ONDO IDAZTEN 9. jarduera. Ondo idaztea prozesu luzea da. 10. jarduera. Kronikaren eskema garatzen. 11. jarduera. Kronikaren ardatz kronologikoa. 12. jarduera. Lexikoa lantzen. 13. jarduera. Bizitako gertaera kontatzen.
4. LAN-SEKUENTZIA NARRAZIOEN DRAMATIZAZIOA 14. jarduera. Irrati-nobelak 15. jarduera. Esatari onaren ezaugarriak 16. jarduera. Dikzioa hobetzeko ariketak 17. jarduera. Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan
5. LAN-SEKUENTZIA IRRATI-KRONIKA GRABATZEN 18. jarduera. Kronika ahozko jardunerako egituratzen. 19. jarduera. Praktikatze. 20. jarduera. Entzuleentzako grabatzen.
Auto-ebaluazioa

0. jarduera. Motibazioa

Zein da komunikabide edo hedabideen helburua?

"Hedabideek betetzen duten eginkizun soziala informazioa trukatzea da. Ekintza interesgarri batek, albiste edo gertakari batek, zuzenean edo sinbolikoki gizatalde bati eragiten dihonean, ezagutaraztea da hedabideen lana."

Baina, zer dakigu komunikabideei buruz? Hiruko taldean eztabaidatu ondoko komunikabide bakoitzari buruz dakizuenak. Denon iritziak entzun eta erantzunak arrazoitu. Gero, lortu dituzuen erantzunak taldeko batek azalduko ditu gelakideen aurrean.

	Telebista	Zinema	Irratia	Internet	Prentsa idatzia	Publizitatea
Noiz asmatu zen?	1927an			1969an	<u>K.a. 59an.</u>	
Nork asmatu zuen?	Charles F Jenkins-ek					
Non asmatu zen?		Frantzia			Erromatar Inperioan	
Idatzizkoa eta/edo ahozkoa						Idatzizkoa eta ahozkoa
Ordenatu duen garrantziaren arabera						
Zein herrialdetan da hedabide nagusia?			Herrialde ez garatuetan			
Bat-batekoa? Bai/ez		Ez				
Atalak edo saio ezagunak			Kirolez kirol			

Nahiz eta komunikabide horien artean batzuk besteak baino ezagunagoak izan, guztiak ezagutzen dituzue eta gainera, nonahi ikusteko eta erabiltzeko aukera duzue.

Hain erraza denez komunikabideetara jotzea, XXI. mendea informazioaren eta komunikazioaren mendea dela diote, baina, komunikabideetan azaltzen den guztia itsumustuan sinesteko modukoa dela uste duzue?


Irakur ezazue ondoko testua

"Nadie hubiera creído, en los últimos años del siglo XIX, que a nuestro mundo lo observaban minuciosamente inteligencias mayores que las del hombre, aunque mortales como él; que, mientras los hombres se ocupaban de sus diversos asuntos, alguien los vigilaba y los estudiaba, quizá tan detalladamente como un hombre con un microscopio podría vigilar a las pequeñas criaturas que medran y proliferan en una gota de agua. Con infinita complacencia, los hombres fueron de un lado a otro por el planeta ocupándose de sus pequeños asuntos, seguros de su dominio sobre la materia. Tal vez los microbios que vemos al microscopio hacen lo mismo. Nadie pensó que los mundos más antiguos del espacio pudieran ser fuente de peligro para la humanidad. Sólo pensamos en ellos para desechar la idea de que pudieran albergar vida. Es extraño recordar los hábitos mentales de aquellos días. Cuando mucho, los hombres se imaginaban que en Marte vivían otros hombres, quizá inferiores a ellos y dispuestos a recibir emisarios terrestres. Pero a través de las enormes distancias espaciales, unas mentes que son a las nuestras como las nuestras a las de las bestias, unos intelectos vastos, fríos y crueles, miraban a la Tierra con envidia, y, lenta pero inexorablemente, fraguaron planes contra nosotros. Entonces, a principios del siglo XX, se produjo la gran revelación".

La guerra de los mundos. H.G.Wells

1938. urtean Orson Welles zinema-zuzendariak goian dagoen testua erabilita, irrati bidez,, *Munduen arteko gerra* nobelaren dramatizazioa egin zuen Halloween (Domu-santu bezpera) egunean. Bertan, estralurtarrak lurra bereganatzen ari zirela zioen. Jendeak, ordea, benetako gertaeratzat hartu zuen eta egundoko eragina izan zuen orduko gizartean.

Ikasbil.net web gunetik ateratako *Munduen arteko gerra* irratsaioak gertaera haren berri ematen digu. Entzun baino lehen, irratsaioari buruzko galderak irakurri, eta gero, irakurtzen joan ahala galderak erantzun.



[Munduen arteko gerra](#)

[Transkripzioa ikusi](#)

IRRATSAIOARI BURUZKO GALDERAK	Egia	Gezurra
1. “Munduen arteko gerra” Orson Welles zinemagileak idatzitako eleberria izan zen.		
2. Platilo hegalarietatik jaisten zen izakien itxura biribila zen.		
3. Garai hartan irratia komunikabide hasiberria zen Estatu Batuetan		
4. Urte haietan, irratietako programarik arakastatsuenak dramatizazioak izaten ziren.		
5. Orson Wellesek programaren hasieran ez zuen ezer aipatu eman behar zuten edukiari buruz.		
6. Entzuleetako askok ez zieten kasurik egin programaren hasierako azalpenei iragarkiak zirela uste izan zutelako.		
7. Irratsaioan zehar astrologo batek meteorito bat lurrera erori zela esan zuen.		
8. Batzuk leihoko zirrikituak ixten saiatu ziren gerlako sua barrura sar ez zedin.		
9. Ondorengo egunetan, egia jakin zenean, haserre handia piztu zen Estatu Batuetan.		
10. Orson Welles berak uste eta espero bezalako ondorioak izan zituen irratsaio berezi hark.		



Komunikabideen boterea norainokoa den erakusten duen adibide garbia da hau eta, aldi berean, kezagarria. Eleberri horri buruzko irratsaioa fikzio hutsa zela adierazi bazuten ere, entzule gehienek benetako egoera zela uste izan zuten, eta hainbat herritan ebakuazioak egin zituzten. Larrialdietarako zerbitzuek gainezka egin zuten, eta zerbitzu publikoetan kolapsoak izan ziren nagusi.

Adibide horrek erakusten duenez, komunikabideen bitartez heltzen zaizkigun mezuak era kritikoan entzuten ikasi behar dugu. Horretarako, proiektu honetan komunikabideetako hainbat genero ikusi, aztertu eta landuko dituzue; baita komunikabideetan erabiltzen diren trukutxoak ikasiko ere, kronika eta erreportajea gauzatzerakoan lagungarri izango zaizkizue eta.

Baina lehenengo, gogoratu behar duzue kazetari on batek nolako ezaugarriak izan behar dituen. Gaztelaniako unitatearen motibazio jardueran ikusi duzue hori. Orain irratikazetariaren ezaugarriak idatziko dituzue (ez ahaztu irratia ahozko hedabidea dela eta ez idatzizkoa).

IRRATIKO KAZETARI ONAK IZAN BEHAR DITUEN EZAUGARRIAK

KAZETARI ONAK

- 1.
- 2.
- 3.

IRRATIKO KAZETARI ONAK

Negoiazioa


Bestalde, idatziko duzuen kronikan zeri buruz hitz egingo duzuen pentsatu beharko duzue. Horretarako, zein diren gaurkotasuna duten gaiak jakin beharko duzue, eta hori nola lortu? Gelan hemeroteka bat sotzea eta albiste interesgarriak iragarki-taulan eskegitea lagungarri izan dakizueke. Horretarako, egunkariak edo aldizkariak ekarriko dituzue gelara.

Era berean, komenigarri izango zaizue, azken ekoizpenea lortzeko bete behar izango duzuen prozesua argi izatea. Horretarako, hiruko taldetan bildurik aztertu txantiloia. Kontuan hartu honako jarraibide hauek:

- Irakurri tentuz.
- Idatzi zutabe horietan zuen ustez falta dena, garrantzitsua baldin bada.
- Zuen ustez garrantzirik ez duena, kendu.
- Sailkatu zutabe bakoitzeko elementuak garrantziaren arabera.
- Taldeko ordezkaria izendatu denok batera aritzean ikaskideei zuen taldekoen iritzien berri emateko.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
▪ Narrazioen ezaugarriak ▪ Kroniken ezaugarriak ▪ Gertaerak era ezberdinetan kontatzen ▪ Kronika ekoizteko prozedura ▪ Testua kohesionatzeko baliabideak ▪ Ahozko narrazioen gakoak ▪ Testuaren kohesioa lantzen ▪ Irrati-kronika taldeka sortzen eta ematen ▪ ...	▪ Testuak (idatziak eta ahozkoak) aztertu eta fitxak bete ▪ Galderak zehatzak erantzun ▪ Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei ▪ Irrati-kronikarako informazioa bildu ▪ Testuetako hutsuneak bete ▪ Ekoizpenak berrikusi eta zuzendu ▪ Ikaskideen ekoizpenak aztertu ▪ Taldeka eztabaidatu, ados jartzeko ▪ ...	PROZEDURAK ▪ Auto-ebaluazioaren bidez ▪ Ikaskideen ebaluazioaren bidez ▪ Aurkeztutako lantxoaren bidez ▪ Probatxoaren bidez ▪ Koadernoak zuzenduz ▪ Azken talde-ekoizpenaren bidez ▪ ... JARRERAK ▪ Parte-hartze aktiboaren bidez ▪ Talde-lanetan kideak errespetatuz ▪ ...

1. LAN-SEKUENTZIA KRONIKA, NARRAZIO-GENEROETAKO BAT



1. jarduera. Narrazioak nonahi

Zer narrazio-mota ezagutzen dituzue?

Orain arte ikusi dituzuen narrazio gehienak oso antzekoak izan dira, narrazio literarioak dira eta. Baina ipuin edo nobelez gain, badira beste komunikazio egoera batzuei lotutako narrazio-genero ugari, denak erabilgarri.

1.1. ariketa. Ariketa honetan, hiru narrazio-testu dituzue; euren arteko antzekotasunei eta ezberdintasunei erreparatzeko aukera izango duzue. Horrela, gauzatuko duzuen testuak, narrazioa denez gero, izan beharko dituen ezaugarrietako batzuk zehaztuko dituzue



Prozedura

Bakarka, irakurri ondoko txantiloia, testu bakoitzean zer begiratu behar duzuen jakiteko. Ondoren, irakurri hiru testuak eta txantiloia bete. Gero, alboko lagunarekin konparatu, baina erantzunak ondo arrazoituz, eta azkenik, talde handian bateratu.

	1. testua	2. testua	3. testua
Erabilpen-eremua: - Literatura - Akademikoa - Komunikabideak - Instituzioekiko harremanak - Pertsonen arteko harremanak			
Komunikazio-asmoa: - Gai bati buruzko ezagutza maila handitzea - Gertakizun baten berri ematea - Konbentzitzea			
Erregistroa: - Informala - Formala			
Nor da igorlea?			
Nor da hartzailea?			
Ekintza erreal al da?			
Noiz gertatu da?			
Noiz dago idatzita?			
Ezaugarriak bereizgarriena			
...			



1. testua

Bagdadeko morroia

Bazen behin, Bagdadeko hurian, merkatari aberats baten zerbitzuan lan egiten zuen morroi bat. Egun batez, goizaldetik, morroia Bagdadeko azokara abiatu zen erosketak egitera. Baina goiz hura ez zen beste goizak bezalakoa izan. Goiz hartan morroiak Heriotza ikusi baitzuen azokan. Eta Heriotzak keinu bat egin baitzion morroiari.

Izututa, morroia merkatariaren etxera itzuli zen.

"Nagusia", esan zion-. "Utzidazu etxeko zaldirik hoberena. Gaur gauerako Bagdad honetatik urrun egon nahi nuke, gaur gauerako Ispahango huri apartatu hartan egon nahi nuke."

"Baina, zergatik egin nahi duk ihesi?" galdetu zion merkatariak.

"Azokan Heriotza ikusi dudalako, eta amenazuzko keinu bat egin didalako".

Merkataria hunkitu egin zen, eta zaldia utzi zion. Eta morroia abiatu egin zen gauean Ispahanen egongo zelako esperantzan.

Egun hartako arratsaldean, merkatariak berak ere azokarako bidea hartu zuen. Eta goizean morroiak bezala, berak ere Heriotza ikusi zuen han.

"Heriotza", esan zion berarengana inguratuz- Zergatik egin diozu amenazuzko keinu bat nire morroiari?"

"Amenazuzko keinu bat!" erantzun zion Heriotzak- Ez, ez da amenazuzko keinu bat izan, baizik eta hamidurazkoa. Harritu egin naiz hura hemen ikusteaz, hain urruti Ispahandik, zeren gaur gauean Ispahanen hartu behar baitut zure morroi hori..."

Bernardo Atxaga, Obabakoak

2. testua

Larunbata, 2007ko urtarrilaren 20a.

www.berria.info

Balmasedako Institutuak dio arroparen araua zentzuzkoa dela

ERREDAKZIOA Bilbo

Balmasedako (Bizkaia) Institutuko Eskola Kontseiluak ikastetxean «modu egokian» janztera behartzen duen artikulua onartu du. Iazko ekainaren 29an proba gisa onartu zuten; aurtengo urtarrilaren 10ean, berriz, funtzionamendu araudian sartu dute. Artikuluak hauxe dio: «Logikoa da pentsatzea ezin dela ikastetxera etorri hondartzara joaten garen moduan, eta muga bat ezarri behar da».

Eskola Kontseiluaren esanetan, iazko ikasturte amaieran zenbait ikasle ikasgelan ez ziren arbelera atera, «soinean zuten arroparekin deseroso sentitzen zirelako». «Horregatik», argitu du Eskola Kontseiluak, «zentzuzkoa dena» idatziz jaso zuten.

3. testua

Iguazuko parke naturala, 2007ko maiatzaren 4a

Kaixo Jon:

Lurraldeak esploratzen jarraitzen diagu, ikusten duanez. Argazkian ageri diren antzinako hondakinak ikusten izan gintuan. Izenik Gabeko ibaiaren ezker aldean dituk, oihan trinkoak inguratuta, aborigenek Bill Bow izenez ezagutzen duten lekuan. Inork ez zakik zertarako jaso zitean edo zertarako erabiltzen zituan eraikina. Hipotesi asko zegok horren inguruan, baina serio hartzeko moduko ezer ez. Egun tximino oihularien bizilekua duk eraikina. Sekulakoa duk egunsentian eta ilunabarrean egiten ditean zarata. Irudian ez duk tximurik ikusiko, baina postal hau belarrira hurbiltzen baduk, haien garrasiak entzungo dituk, zalantzarik gabe.

Musu handi bat eta ongi izan.

Laster arte, Ane.



Jon López Jensen

Artola Etorbidea 22-4.ezk.

48300 Gernika-Lumo

Bizkaia

1.2. ariketa. Seguru **kronika** eta **erreportaje** hitzak entzun dituzuela inoiz, adibidez, kirol-kronikak, herrietako kronikak, Euskadi Irratiko *Goiz Kronika* programa... eta aldizkarietako erreportajeak, publi-erreportajeak, etab.

Prozedura

Binaka, eztabaidatu non entzun duzuen **kronika** hitza; unitate honetan irakurri eta aztertutako testuetatik aukeratu, zuen ustez, kronikaren antz handiena duena; eta zergatia azaldu.

KRONIKAREN	ANTZ	HANDIENA	DUENA:
ARRAZOIAK:			

2. jarduera. Kroniken ezaugarriak zehazten

Una **crónica** es una obra literaria que narra hechos históricos en orden cronológico. En la crónica (en latín *chronica*, en griego *kronika*, que significa Biblia o libros) los hechos se refieren en orden temporal y se define como una historia escrita por testigos oculares o contemporáneos y en donde se observan el orden de los acontecimientos en el tiempo.

Hemen duzuen definizioa Wikipediatik hartutakoa da. Azpimarratu, binaka, zuen ustez kronika zer den adierazteko garrantzitsuak diren hiru hitz.

Konparatu aukeratutako hitzak alboko bikotearekin, lauron artean bateratu kronikak izan behar dituen ezaugarriak (hiru baino gehiago izan daitezke), eta azkenez, idatzi euskaraz.

KRONIKEN EZAUGARRIAK


-
-
-
-

Egiaztatu aurreko 1.2. jardueran jarri dituzuen arrazoiak hemen adierazi dituzuen ezaugarriekin bat datozela.



3. jarduera. Egun, kronikak nolakoak eta norentzat

Sortu zirenean, kronikak gai historikoei loturiko idazkiak ziren eta gehienetan nazio baten sorrera kontatzeko, nazio biren arteko guda kontatzeko, aro bateko gertaerak kontatzeko... erabiltzen ziren.



Gaur egun, kronika kazetaritzako generoetariko bat da. Kontaketa ere bada, baina gaurkotasuna duen gertakizun bati buruzkoa, eta kazetariaren interpretazioa ere erakusten du.

3.1. ariketa. Gaur egun idazten diren kroniken adibide, 4. testu hau duzu.

Prozedura

Binaka, irakurri testu osoa, gaia argi izateko; gero, bigarrenaz irakurri eta, bide batez, bertan azpimarratu behaketa-orrian eskatzen diren datuak.

4. testua

<http://www.anboto.org/>

KRONIKA Bertso-bazkaria

- Gazte Eguneko bertso bazkaria
- Azaroaren 3an, Olakuetako frontoian



Maia eta Iturriaga aritu ziren bazkalostean bertsoak botatzen.

Gaztaiak eta gazteak

• I.E.

Ehundik gora lagunendako bazkaria izan zen zapatuan Berrizko frontoian, Gazte Eguneko erdibidean eta ondorengo olinpiada eta triki-poteorako indarrak hartzeko. Tartearen, eta mahai zabalaren erdialdean zutunduta, gazte eta ez hain gazte izateaz jardun eben bertsolariak; gazte bazkarian, platerera begira zegoen burusoilen bat ikusi eben. Platerean, entsalada,

oilasko paparra gaztai- saltsan eta mandarina zein limoizko sorbetea izan ziren. Bazkalostean eskuz esku ibili zen gaztaren pisuaren inguruko espekulazinoan be aritu ziren Iturriaga eta Maia. Mahaiaren bueltan gengozen guztion modura, zenbateko pisua zeukan asmatu guran.

San Pedroetan bakarrik batzen dela Berrizen hainbeste jente, eta gonbidatuz gero, barriz etortzeko asmoa agertu eben bertsolariak. Laburtxo izan zen edo egin jakun behintzat bertsolarien ekipa, eta ondoren bertsolariak eurak be musean aritu ziren. Kartetan abilitade lar ez geunkanok koi-laraategaz arrautza eroaten edo herrian ahal zen beste EHNA eskuratzeko saiatzen genbilzen, bien bitartean. Eskualdeko taldeen kontzertuekin, Gaztetxean izan eban bukerak Berrizko Gazte Egunak, eta baita herria ekarri zituen kultur ekitaldiek be.


BEHAKETA-ORRIA

1. Denbora jakin batean eta toki jakin batean gertatu diren ekintzak kontatzen ditu.
2. Berriak gaurkotasuna zuen (orduko momentuan).
3. Era polit eta entretenigarrian kontatzen du.
4. Idazlea/Esataria lekuko da.
5. Kronologikoki kontatzen du.
6. Idazlearen/esatariaren interpretazioa agertzen da.
7. Jorratzen duen gaia.

3.2. ariketa. *Gaztaiak eta gazteak* kronika erregistro formalean idatzita dago, baina zer edo zer ezberdina du, *Berria* egunkarian agertzen diren kronikekin konparatuta.

Prozedura

Binaka, bete honako koadrotxo hauek; eta ondoren, beheko eskema bete.




3.3. ariketa. Orain, testua euskaldun berri batentzat egokituko duzue.

Prozedura

Binaka, batzuek testuaren lehenengo paragrafoa egokituko duzue eta beste batzuek bigarrena. Horretarako:

- Hiztegia erabili.
- Ondo zehaztu esaldi bakoitzean nork, nor edo zer elementuak, gero, batuerako aditz egokiak jartzea errazago izan dadin.



Irakurri honako baieztapen hau; eta gero, alboko gelakideari esan ados zauden ala ez, eta azaldu zure erabakiaren zergatia.

Denok dakigu hizkuntza desberdinak jakitea aberastasuna dela; era berean, euskaraz hitz egiteko modu bat baino gehiago ezagutzea ere aberastasuna dela.

Horregatik:

- Bizirik iraun dezan, erabili zure herriko euskalki edo azpieuskalkia lagunartean, etxean, herriko jendearekin komunikatzeko... aberastasuna baita.
- Euskalki desberdinak ezagutzen ez dituztenen artean, ahalegindu zure euskalkia era formalean erabiltzen komunikazio-arazoak gainditzeko.

Orain, erabaki bion artean azken ekoizpenerako euskara batua ala euskalkia erabiliko duzuen; eta, era berean, zein hizkuntza erregistro erabili beharko duzuen, ez ahaztu nortzuk izango diren hartzaileak.

Azken ekoizpena _____-z egingo dugu.

Aukeratzen duzuen aukeratuta, hizkuntz erregistroa hau izan behar da:

Formala

Informala

4. jarduera. Kronikaren gaia erabaki behar dugu

Lehenengo eta behin, kronika zein gairi buruzkoa izango den pentsatu behar duzue. Baina ba al dakizue zenbat kronika-mota dauden? Askok, kronikak egiteko gai-aukera zabala baita.

4.1. ariketa. Aurrerago dagoen txantiloian ageri zaizkizue [kronika-mota](#) ezagunenak. Askok dira, ezta? Guztiok mota bakoitzetik gutxienez bat ezagutzeko aukera izan dezazuen, taldeka banatuko dugu lana.

Prozedura

Irakasleak hiruko talde bakoitzari kronika bi banatuko dizkie (posible balitz, taldekide bakoitzari bere kopia). Taldeak kronikak irakurri eta haietan agertzen den informazioa aztertuko du, 3. jarduerako kontrol-orria erabiliz. Gero, taldeko ordezkariak beste taldeei azalduko dizkiete kronikak. Azkenean, denen artean kronika bakoitzaren gaia erabakiko duzue, bai eta zer kronika mota diren ere.



KRONIKA MOTAK	IZENBURUA	GAIAK
Herriko kronika		
Atzerriko kronika		
Kronika politiko-judiziala		
Ezbeharretako kronika		
Kirol-kronika		
Gizarte-kronika		
Bidaia-kronika		
Kultur kronika	<i>Gaztaiak eta gazteak</i>	Bertso saioak Rock kontzertua ...

Agian ez duzue kronika-mota guztien adibiderik izan, ea falta diren motak aurkitzen dituzuen hemerrotekako edo etxeko egunkarietan, begiratu euskaraz edo gaztelaniaz daudenetan, eta baita beste hizkuntzetan dauden egunkarietan ere.



Oso ezberdinak diren gaiak jorratzen dituzten hainbat kronika-mota daudela ikusi duzue. Orain, zuek jorratu nahi duzuen gaia zein den erabaki behar duzue.

4.2. Prozedura

Hiruko taldean bildurik, taldekide bakoitzak bi edo hiru proposamen botako ditu, bere gustuko gaiak kontuan harturik. Gero, denen artean gaia aukeratuko duzue, honako irizpide hauek kontuan izanik:

- Gaurkotasuna duen gaia izatea.
- Zuen interesekoa izatea
- Entzuleen interesekoa izatea
- Gertaeraren lekuko izateko aukera baduzue, oso lagungarria izango da kronika egiterakoan.

GAI-PROPOSAMENAK

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.

GAIA:

.....

Gaia erabakita duzuenek, kronika idazteko behar duzun informazioa lortzen hasiko zarete.

Kronikarako informazioa lortzeko aukera bi dituzue:

- Kronika egiteko aukeratu duzun ekitaldira joan eta behar duzun informazioa zuzenean hartu.
- Asmatu ekitaldia edo gertaera eta lekuko zarela imajinatu.



Edozein aukeratuta ere, honako txantiloia honetan dituzuen puntuak kontuan hartzea lagungarri izango zaizue. Aurreko jardueretan ikusi dituzuen kronikaren ezaugarriak eta gaztelaniako unitatean aztertu dituzuen albiste on baten ezaugarriak aintzat hartuta, hortxe duzue kronika on bat idazteko behar duzun informazioa.

KRONIKARAKO BILDU BEHAR DUZUEN INFORMAZIOA

- ❖ Gogoratu gaztelaniaz ikusitakoa, berri on bat idazteko erantzun behar diren galderak: Zer?, Nork?, Non?, Noiz?, Nola?, Zergatik? Eta ahalegindu galdera horietatik gehienak erantzuten.
- ❖ Ekitaldia edo gertaeraren deskripzio kronologikoa egin.
- ❖ Atentzia ematen dizun edozer apuntatu:
 - Lekuaren deskripzioa (tamaina, eguraldia, zarata...) egin.
 - Pertsonaien deskripzio fisikoa egin.
 - Pertsonaien sentimenduak interpretatu.
 - Ikusleen sentimenduak interpretatu.
 - Ikusi duzunaren edo gertatu denaren balorazioa egin.
 - ...



2. LAN-SEKUENTZIA GERTAERAK NOLA KONTATU AZTERTZEN

Aurreko lan-sekuentzian, kronika zer den ikusi duzue eta kontatuko duzuen kronikaren gaia erabaki. Baina, testuinguruaren arabera, kronika kontatzeko hainbat era daude. Lan-sekuentzia honetan era horiek ikusiko ditugu, eta zuen irrati-kronikarako zeintzuk erabiliko dituzuen aukeratuko.

5. jarduera. Irrati-kroniken ezaugarriak.

Pou anaiak Patagoniako mendiak eskalatzen ari zirela, frantziar eskalatzaile batzuek istripua izan zuten. Haiei laguntzeagatik tontorrera heldu gabe geratu ziren. Gainera, beste mendizale batzuei eskatu arren, ez zuten laguntzarik lortu. Ikasbil.net-etik ateratako irratsaio honetan gertaera horren kronika duzu.



[Transkripzioa ikusi](#)



Pou anaiak erreskate lanetan

Prozedura

Hiruko taldeak egin eta Pou anaien erreskatearen kronikaren ezaugarriak aztertu eta zehaztu honako txantiloi honetan:

Pou anaiak erreskate lanetan	
Zein da helburua?	Gertaera batzuei buruzko informazio zehatza ematea Gertaera batzuei buruzko informazioa emateaz gain, interpretazioa ere egitea.
Esataria nolakoa da?	Lekukoa Parte-hartzailea ...
Zein da kronikaren egitura?	❖ KOKAPENA/MARKOA _____ _____ ❖ _____ _____ ❖ _____ _____ ❖ _____ _____ ❖ _____ _____ ❖ BUKAERA/KONPONBIDEA _____ _____
Nolako hizkuntz baliabideak erabiltzen dira?	o Kohesio emaileak: Lokailu, testu-antolatzaileak: Adibidez:..... o Esaldi motak: denborazkoak, ondoriozkoak, arrazoizkoak, baloraziozkoak, iritzizkoak... (azpimarratu ageri direnak) o Aditzaren ardatza: Orainaldia Lehenaldia Geroaldia o Lexikoa Neutroa Baloratzailea
Beste baliabide batzuk	Musikaren edo erabilera. Noiz?..... Ahotsaren bolumena, erritmoa, intonazioa...bai ala ez?

6. jarduera. Nork eta zelan kontatzen du kronika?

Ezagutzen al dituzue honako pertsona hauek? Zertaz idatzi dute?

5. testua



Naufrage Harbouretik iritsi gara Cap Bretoneko penintsulara, Cheticampera hain zuzen ere. Etxetikan gertuago, esaten dugu guk. Cheticampen Parks Canadak kudeatzen dituen natur parke ugarietako bat dago. Bertako etxola batera eraman gaituzte, parke barruko mendi

malkartsu eta basotsuen artean, ezker eskubi baso itxia. Mendi artetik itsasorantz datorren sakonera gutxiko erreka zabal eta harritsua zeharkatu dugu eta baso barrenera sartu. Parke honek Baxenafarroa osoaren azalera betetzen du. Inguru basati eta eder hontan garai batean indioak ehizan ibiltzen ziren, aske. Haiek ez baina, hartzak eta oreinak libre dabilta garai batean bezala. Hartza ikusteko badugu halako gogo berezi bat, bidaiari ekin aurretik dakarguna, baina ez dugu behar besteko denborarik izan lehorreko txangoetarako.

<http://www.diariovasco.com/>

Julen Gabiria,
idazle eta
itzultzailea

Jon Maia, idazle
bertsolari eta
abeslaria

Ternua uhartera joan
zen antzinako bale
arrantzaleek egiten
zuten bidaia egiteko.

Berak idatzitako
Anariren azken
kontzertuaren
kronika duzue.

6. testua



Ostiralean ikusi nuen Anari kontzertuan, 8 edo 9 urte pasatu eta gero. Elorrioko Arriola Antzokian izan zen: ez ahazteko moduko kontzertua. Ahotza apur bat kraskatuta zuela hasi zen kantuan, eta kontzertua amaitzerako erabat zeukan ahotza

hautsita. Une batzuetan sufritzen ibiliko zela pentsatu nuen, eta ez dakit sufritu zuen edo ez, baina entzulearentzat zoragarria izan zen, kantaria amildegiaren ertzean ibili baitzen denbora guztian, arriskatzen, bere kantuen bertsioak egiten, hitzak agoniarraino luzatzen, oihu egiten eta esaten ari zen guztia bizitzen. Bai, dudarik gabe, asko arriskatu zuen kontzertu osoan. Eta ondo irten zitzaion, itzel. "Inoizko erotikoen", esan zidan Peru Magdalena lagunak, kontzertua amaitzean.

<http://eibar.org/>

6.1. ariketa

Binaka elkartu eta irakurri 5. eta 6. testuak. Lotu biribiltxo bakoitza dagokion idazle eta testuarekin. Ondoren, koadrotxoan idatzi ondoko galderen erantzunak:

-Idazlea testuan kontatzen diren ekintzen protagonista al da? Lekukoa al da? Arrazoitu. Horretarako, esan testuan non ikusten den hori, eta adibide pare bat aipatu.

-Testuak adierazten duen denborari erreparaturik, berriz, gertatu ahala idazten al du kronikariak? Gertatu ostean idazten al du, gogoratu ahala? Arrazoitu. Horretarako, esan testuan non ikusten den hori, eta adibide pare bat aipatu.


	Testua	Adibideak
Protagonista edo parte-hartzailea		
Lekukoa		
Gertatu ahala		
Gertatu ostean		

Goiko bi ereduetan egiaztatu duzuenez, kontakizuna azaltzerakoan oso garrantzitsua da adizkien erabilera egokia, horretan ere nabaritzen da egilearen trebezia, egiten duen aukeraketak testua ondo kohesionatzeko berebiziko garrantzia baitu.

Esan ezazue zein denbora ardatzetan kokatuko zenituzketen testu bakoitzeko gertaera gehienak: orainaldiaren edo lehenaldiaren ardatzean.

5. testua

6. testua



Non ikusten da **orainaldiaren** ardatza?

Adibideak:

Zein dira orainaldia adierazten duten partikulak?

Non ikusten da **lehenaldiaren** ardatza?

Adibideak:

Zein dira lehenaldia adierazten duten partikulak?

Ikusten duzuen euskaraz adizki trinkoak eta adizki perifrastikoak ditugu, eta azken horietan aldia aditz laguntzaileaz adierazten da: lehenaldia edo orainaldia.

Aspektua dugu euskal aditzaren beste ezaugarri bat.

ASPEKTUA

Aspektuak aditzak adierazten duen ekintza amaituta dagoen ala ez azaltzen du. Honelakoa izan daiteke:

- **Burutua [+perf.]**: ekintza amaituta dago (ekarri dut, esanda daukat)
- **Burutugabea [-perf.]**: ekintza ez da amaitu oraindik (ekartzen dut, ekarri ohi dut)
- **Gertakizuna [+gert.]**: ekintza hasi gabe dago (ekarriko dut, ekarri behar du, ekartzera noa)
- **Puntukaria [punt.]**: ekintza momentu horretan ari da gertatzen (nabil, ikasten ari naiz)
- **Aspektugabea [Ø]**: aspektu informaziorik ez du (ekar Ø dezaket/ibil Ø ninteke).

6.2. ariketa

Binaka, zehaztu testuetako adizkien egoera nolakoa den aditz-egintzaren garapenari eta bukaerari erreparaturik, hau da, aspektuari erreparaturik.

	[+perf.]	[-perf.]	[+gert.]	[punt.]	Ø
Iritsi gara	X				

Euskaraz eta gaztelaniaz aditz-sistema ez dator bat beti, hori dela eta, askotan akatsak egiten ditugu gaztelaniaz euskararen eraginez, eta alderantziz.



6.3. ariketa

Aditza erabiltzean denbora eta aspektuari lotutako akatsik ohikoenak aztertuko dituzue jarduera honetan.

Binaka, erabaki ondoko esaldiak egokiak diren ala ez. Txarto daudenak zuzendu.

1. Joaten gara gazte-lekura klaseak amaitu ostean?	
2. Sartu da; ikusi du mutila eta belarrondoko bat eman dio.	
3. Egunero joaten gara oinez etxera	
4. Aspaldian ez dut zure anaia kaletik ikusten	
5. Institutu hau 1964an sortua da	
6. Eramaten al nauzu etxera kotxez?	
7. Irekitzen didazu?	
8. Giltzak etxean utzi ditut	
9. Goaz gu biok batera	
10. Etorriko al zara nire bila?	
11. Igerilekura joaten ari gara	
12. Bostetan geratzen gara	
13. Idazle ospetsua, 1955ean jaiotzen da	
14. Hara non sartzen da mutil gazte bat bankuan, joaten da leihatilara eta pistola ateratzen du.	
15. Nire aitona 1925ean jaio zen, eta 1999an hil.	

Talde handian bilduta, zuzendu eta saiatu honako galdera hauek erantzuten: zein da akatsik ohikoena?; zergatik egiten dugu?; zer erabiltzen dugu txarto?; zerk eraginda?

Kronika idaztean, beraz, kontuan izan garrantzi handia duela aditza era egokian erabiltzeak; horrenbestez, ez ahaztu jarduera honetan aditzaren aldiari eta aspektuari lotutako ezaugarriez esandakoa, eta saiatu ohiko akatsak ez egiten!

KONTUZ!!! Euskaraz egiten diren akatsik larrienak hauexek dira:

1. _____
2. _____
3. ...

7. jarduera. Informatu eta interpretatu

Gaztelaniako unitatea ikusi duzuenez, kazetaritza-genero ugari daude: genero informatibo soila, hots, albistea, hainbat iritzi-genero, iritzi-artikulua, adibidez, eta tartean, interpretazio-generoak, kronika alegia.

7.1. Prozedura

Binaka, irakurri 7. eta 8. testuak eta ondoren, beheko taula bete:

7. testua

ALAVES	3
DEPORTIVO	1
Alaves: Leal; Berruet (Pablo, 46. min), Pedro Alberto, Tellez (Carmona, 77. min); Alfonso, Albistegi, Azkoitia, Angle Luis (Moreno, 59 m.), Ibon Begonia; Pedro Riesco, Tamudo.	
Deportivo: Songo'o; Armando, Paco, Donato, Bonnissel; Scaloni, Ramis, Helder, Fran; Manteca Martínez, Abreu.	

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

HAU FESTIBALA! Alavesek 6-1 irabaz zezakeen atzo, soil-soilik Songo'oren atean izandako goleko okasio guztietako bakan batzuk sartu izan balitu. Partidu ikusgarria eskaini zuen Alavesek, eta, gezurra badirudi ere, gaizki egin zuen oso, talde galiziarra Mendizorrotzatik bizirik atera eta Coruñan 2-0 irabaziz aurrera egingo baitu.

Pena izan zen atzoko aurkaria errematatu ez izana, orain hurrengo partiduaren emaitza nolakoa izango den ikusi beharko dugu. Baina, nolabait berdin dio, atzo ikusitakoa berez nahikoa izan zen eta.

8. testua

1.250 euro ordaindu dituzte Elvis Presleyren ile batengatik

2007/11/12

Bartzelonako Diskoaren Azokaren seigarren edizioan Elvis Presleyren ile bat enkantean jarri da. Henry Ford-ek abeslariaren bizarginak, gorde zuen ilea 1.250 eurotan saldu da.

Mariano Ruiz Cuevas izan da "rockaren erregea"ren ilea eskuratzeko zortea izan duena, eta berarentzako "izugarritzko balioa" duen objektua lortzeagatik "oso pozik" dagoela adierazi du.

Bartzelonako Palau Sant Jordin izandako enkantean hogei bat lagunek parte hartu dute. Bertan, beste gauza batzuen artean, Bruce Springsteeneko platinozko disko bat eta Freddie Mercury eta Montserrat Caballé sinatuak ziren argazkiak jarri dira enkantean

<http://www.eitb.com/euskara/albisteak/albisteak.asp?id=367863>


	7. testua	8. testua
Data eta idazlearen izena		
Kazetariak interpretaziorako erabiltzen dituen hitzak edo esamoldeak		
Parte-hartzailearen baten interpretazioa edo iritzia		
Nola agertzen da?		
Komunikazio-asmoa		
Kazetaritza-generoa		
Zergatiak		

Egoera interpretatzerakoan hizkuntza baloratzailea erabiltzen dugu, terminologia hain zehatza eskatzen ez duen hizkuntza, hau da, balio konnotatiboa duten hitzak edo esamoldeak. Horrela, gaiari buruz dugun iritzia adierazten dugu.

Idatziko duzuen kronikan hizkuntza aberatsa eta esanguratsua erabiltzeko baliagarria izango zaizue hurrengo ariketan proposatzen dizueguna.

Lo malo de la gran familia humana es que todos quieren ser el padre

Sí, sí. El jefe querrás decir.



Adiera denotatiboa hitzek berez duten adiera da, hiztun guztiek erabiltzen dutena: hitzak adiera horrekin definitzen dira.

Adiera konnotatiboak lehenengo mailako esanahiari gehitutako balio eta ñabarduren multzoa biltzen du eta ezberdina izan daiteke pertsona batetik bestera. <http://www.hiru.com/>

7.2. Prozedura

Bakarka irakurri testua. Gero, lauko taldean, bikote batek gorritz dauden esamoldeen benetako esangura (denotatiboa) euren hitzekin azalduko du; beste bikoteak gauza bera egingo du berdez daudenekin. Azkenean, bikote bakoitzak euren esamoldeen azalpena erakutsiko dio besteari.

9. testua

Arnasestuka hasi, eta ito

Real Madrilen erasoko jokoa itotzen saiatu da Athletic, baina, azkenerako, pattal, indarrik gabe amaitu du

UNAI ZUBELDIA

Indarrean ekin, **arerioa ito nahian** bultzaka segi, arnasestuka hasi, barruari buelta ematen saiatu, **baina azkenerako itota**, etsi. Athleticen Valentziako 0-3koari jarraipena eman nahi zion atzo etxean, Real Madril liderraren aurka. Nahi zuen, saiatu zen, baina Robinho-Baptista-Raul hirukoaren mugikortasunari esker hasieran, Real Madrilen **joko serioaren** ondorioz ondoren, Van Nistelrooyren jokaldi ederraren eraginez gero, eta nahi baina ezin etengabearen erruz azkenerako, liderraren mende amaitu zuen partida. Jokoz eta kalitatez gutxiago zela ikusita ere, **bihotzarekin presio lanean** eta, ahal izan zuen guztietan **gora joanez**, saiatu ziren bilbotarrak, baina Real Madrilek **lider sendoen konfiantzarekin jokatu zuen** atzo San Mamesen.

Athletic eta Real Madril. Lehen Mailako klasiko handia, eta espero zitekeen partida hasiera. Athleticen atzeko lerroa asko aurreratu zuen hasiera-hasieratik, eta horrek bi ondorio izan zituen. Lehen 15 minutuetan ondorio ona. Real Madrileko euskarrien lana ito, eta presioa arerioaren area inguruan hasita, **horrelako partidetak ohiko grina** erakutsi zuen taldeak. Amorebietaren jaurtiketa area kanpotik, Yesteren falta jaurtiketa, bi korner... Helburu argia zeukan Athleticen: Real Madril bere arean sartu eta bultza eta bultza aritzea. Zortzigarren minutuan iritsi zen Athleticen aldeko aukerarik argienetakoa: Cannavarok buruz eman zion Casillasi, indar gutxiegiarekin, eta Iraolak, area barruan, bakar-bakarrik, ez zuen asmatu -Llorentek ere ederki errematatu zuen buruz 28. minutuan, baina Casillasek geldiketa harrigarria egin zuen-.

Atzeko lerroa hain aurrera eramateak ere baditu bere arriskuak, ordea. Ustaritz eta Robinhoren arteko etengabeko borroka izan zen horren erakusgarri. 3. minutuan eman zuen lehen abisua brasildarrak, 11. minutuan abisu bikoitza talde osoak. Sneijder-Robinho-Raul-Baptista... mugimendu azkar eta ikusgarriekin, Raulek area barruan mugimendu zoragarria eginda, **Aranzubiak dotore geratu zuen**. Baita bigarren jokaldian ere -36. minutuan falta atera eta Sergio Ramosek gola sartu zuen baina jokoz kanpo zegoenez baliorik gabe utzi zuten gola-.

Presio lan txukuna egin zuenean Real Madrilen erasoko **jokaldi asko zapuztu zituen etxeko taldeak**, baina Diarrari, eta, bereziki, Baptistari pentsatzen utzi ziotenean, Athleticen **atzelarien bizkarra baliatuz**, **hegaleko joko bizia egin zuen** Real Madrilek. Robinho etengabe ibili zen eskuinetik ezkerrean, erdira, atzera eta aurrera, eta bilbotarren **atzealdean zаланtza ugari** sortu zituen.

REAL MADRIL OSO EROSO. 40. minutuan **Ustaritzek zelaia utzi behar izan zuen**, min hartuta, eta Orbaiz zelairatu zen bere ordeaz. Baloia berreskuratu nahi, eta erabat galdu. Bigarren zati hasieran **Real Madrilek nahi erara jokatu zuen**. Gola sartu ere, halaxe egin zuen Van Nistelrooyk, nahi erara. Areara gerturatu, begiratu, **eta eskuinez, dotore, barrura**. 10-15 minutuan erreakzionatu ezinik geratu zen Athletic. **Erabat itota**. Sneijder, Raul eta Van Nistelrooyren artean egindako jokaldi ona, **Robinhoren bizikleta festaren ostean** jaurtiketa ederra zutoinera... Askoz gehiago zen Real Madril, eta Athletic hasierako bizitasunik eta presioa egiteko gaitasunik gabe zegoen.

San Mameseko lehoiak 75. minutuan egin zuen orro. Llorentek aukera argia eduki zuen, **baina gehiegi gurutzatuta, kanpora**. David Lopez, Llorente bera, Aduriz... **bultza zuten lehoiek**, baina **jokoz eta kalitatez gehiago izan zen** Real Madril liderra.

<http://www.berria.info/hemeroteka/inprimatzeko.php?html=BERRIA/y2007/m12/d20071209/p00018011.html>

1. arerioa ito nahian	
2. baina azkenerako itota	
3. joko serioaren	
4. bihotzarekin presio lanean	
5. gora joanez	
6. lider sendoen konfiantzarekin jokatu zuen	
7. horrelako partidetak ohiko grina	
8. Atzeko lerroa hain aurrera eramateak	
9. Aranzubiak dotore geratu zuen.	
10. jokaldi asko zapuztu zituen etxeko taldeak	
11. atzelarien bizkarra baliatuz,	
12. hegaleko joko bizia egin zuen	
13. atzealdean zalantza ugari	
14. Ustaritzek zelaia utzi behar izan zuen	
15. Real Madrilek nahi erara jokatu zuen.	
16. eta eskuinez, dotore, barrura	
17. Erabat itota	
18. Robinhoren bizikleta festaren ostean	
19. San Mameseko lehoiak 75. minutuan egin zuen orro.	
20. baina gehiegi gurutzatuta, kanpora	
21. bultza zuten lehoiek	
22. jokoz eta kalitatez gehiago izan zen	

Gaztelaniako unitatean iritzia emateko beste era batzuk ere ikusiko dituzue 16. jardueran. Agian, irradi-kronikarako erabilgarri izango zaizkizue.

8. jarduera. Zuen kronikaren ezaugarriak zehazten

Honezkero, kronikarako behar duzun informazioa bilduta izango duzue. Orain, kronikaren ezaugarriak erabakiko dituzue. Hiruko taldeak egin kronikaren ezaugarriak zehazteko. Hori egiten baduzue, gero errazago burutuko duzue hurrengo lan-sekuentzian eskatuko zaizuen.

Lehendabizi, komunikazio-egoerari buruzko datuak adieraziko dituzue. Horretarako, unitatearen aurkezpenean eta orain arte egindako jardueretan zehaztutako informazioa idatziko duzue taula honetan:

Gure kronika: _____		
Komunikazio egoera	Nortzuk dira igorlea eta hartzailea?	
	Kronikaren helburua	
	Kanala	
	Erabilpen-eremua	
	Hizkuntz erregistroa	

Gogoratu ere zuek hiru izango zaretela kronika egiteko eta gauzatzeko; pentsatu nola egingo duzuen denek parte hartzeko irratikronika gauzatzerakoan, agian musika lagungarri izango zaizue horretarako.



Ondoren, zuen kronikaren ezaugarrien honako eskema hau bete.

Gure kronika:	
Zein da helburua?	Gertaera batzuei buruzko informazio zehatza ematea Gertaera batzuei buruzko informazioa emateaz gain, interpretazioa ere egitea.
Esataria nolakoa da?	Lekukoa Parte-hartzailea
Kronikaren egitura zein izango da?	❖ KOKAPENA..... ❖ GERTATUTAKOA: ❖ BUKAERA.....
Nolako hizkuntz baliabideak erabiliko ditugu?	o Kohesio emaileak: lokailu, testu-antolatzaileak: (adibidez)..... o Esaldi motak: (azpimarratu erabiliko dituzuenak) Denborazkoak, ondoriozkoak, arrazoizkoak, baloraziozkoak, iritzizkoak... o Aditzaren ardatza: Orainaldia Lehenaldia Geroaldia o Lexikoa Neutroa Baloratzailea
Beste baliabide batzuk	Musikaren edo erabilera. Noiz?..... Ahotsaren bolumena, erritmoa, intonazioa...bai ala ez?

3. LAN-SEKUENTZIA KRONIKA ONDO IDAZTEN

Esatariak irradi-kronika irakurri egin behar du; hori dela eta, testu idatzia da beti irradi-kronikaren aitzindari. Sekuentzia honetan zuen kronika idazteko behar dituzuen urratsak jorratuko dituzue. Kronikak izango duen hezurdura erabakiko duzue eta era egokian garatzeko baliabideak aztertuko dituzue.

9. jarduera. Ondo idaztea prozesu luzea da

Kronika zuen institutuko ikasleentzat idatziko duzue, helburua eurek bizi izan ez duten kontzertua, kirol-ekitaldia, bidaia... ondo azaltzea da.

Azalpen egokia eta osoa izatea nahi duzue, xehetasun eta detaile guztiekin kontatu nahi duzue. Beraz, lana planifikatu beharra dago. Idazle ospetsuek ere horrela egiten dute; ondo idaztea ez da bat-bateko prozesua, prozesu luzea baizik.



Prozedura

Irakurri arretaz Julio Vernek elkarrizketa batean kazetari bati erantzun ziona eta azpimarratu bere lan-metodologiaren alderik inportanteenak. Gero, atera testu honetatik Vernek narrazioak idazteko jarraitzen zituen pausuak.

12. testua



...Eta zein dira zure lan-metodoak, monsieur?. Pentsatzen dut ez duzula eragozpenik izango zure sekretua argitzeko. Ez dakit zergatik interesatzen zaizkion jendeari horrelako gauzak, baina nire literatur sukaldaritzan erabiltzen ditudan sekretuak kontatzen hasiko natzaizu, nahiz eta ez dakidan urrats horiek jarraitzea inori gomendatu niokeen. Beti pentsatu dut bakoitzak bere estiloaren arabera idazten duela. Neu nire istorioa izango den horren inguruko zirriborro batekin hasten naiz. Inoiz ez naiz liburu bat idazten hasten hasiera, erdia eta amaiera zeintzuk izango diren jakin gabe. Orain arte nahiko zorte ona izan dut, eskuartean beti izan baitut ez bat, baizik eta dozena-erdi eskema, guztiak buruan definiturik ditudalarik. Inoiz istoriorik bururatuko ez bazait idazteko, lan egiteari uzteko unea izango da orduan. Aldez aurreko zirriborroa bukatu ondoren, kapituluaren ordena antolatzen dut; ondoren, lehenengo kopia idazten hasten naiz arkatzez eta orri-erdiko marjina uzten dut zuzenketarako. Gero, testua osorik irakurtzen dut eta berregiten dut idatzi dudana guztia. Benetako lana lehenengo saioekin hasten dela dioten horietakoa naiz, zeren eta fase bakoitzean zerbait zuzentzeaz gain, kapitulu osoak berridazten baititut. Lana inprimatuta ikusi arte gauzak argi ikusiko ez banitu bezala,. Zorionez, nire argitaratzaileak aukera handia ematen dit zuzenketak egiteko, eta sarritan zortzi edo bederatzire berrikuspen egin ohi dut...

NARRAZIOAK IDAZTEKO PROZEDURA

A diagram of a light blue notepad with a grey border. On the left side, there is a vertical list of ten checkboxes, each containing a checkmark. To the right of these checkboxes are five horizontal lines for writing. At the bottom right of the notepad, there are two small rectangular boxes, one next to the other.

10. jarduera. Kronikaren eskema garatzen

Ez ahaztu kronika ahoz kontatuko diezuela hartzaileei; hori dela eta, kronika era koherentean, errazago garatzeko, kontakizuna ordena kronologikoan antolatuko duzue. Horrela, hartzaileek ez dute haria galduko.



*"Koherentzia da idatzizko
testu batean ideiak, testuaren asmoa zein
izango den kontuan izanik, modu ordenatuan eta
garbian azaltzea."*

<http://www.ehu.es>

Prozedura

Binaka, Ondoko testu laburra kronologikoki ordenatu eta izenburu koherentea aukeratu. Justifikatu zuen erantzunak: hau da, esan zertan oinarritu zarete ordena eta izenburu hori aukeratzeko?

13. testua

Mezetakoa ere ez zen kapitulu makala izan. Aldarera atera eta zegoen giroa ikusita, apaizak bost minututarako sakristian sartuko zela azaldu zuen haserre, eta tarte hori baino ez ziela emango senitartekoei argazkiak ateratzeko. Hara non gerturatzan den aldarera sekulako jende oldea, guztiak korrika lehen lerrotik printzesen eta marinelen (koronel baten bat ere bazen artean) irudiak hobeto hartuko zituztelakoan.

A

Bazkaria gero. Sukalde pareko atean esertzea egokitu zitzaidan. Handik atera ez zituztenak! Mahairik xumeenera ere eramane zituzten gutxienez zortzi plater. Goxo amorratuak guztiak, garesti amorratuak denak.

C

Aspaldiko urte hauetan mila bider entzun nuen jaunartzeak ezkontza handien pareko bihurtzen ari zirela, baina herenegun arte ez nuen halakorik zuzen-zuzenean ikusteko paradarik izan.

B

Goizean goizetik hasi nintzen haluzinatzen. Jaiki eta egunkaria erostera nindoala, ez nuen ba auzoko ile apaindegia zabalik ikusi! Nahastuta nengoela pentsatu nuen hasieran, oraindik larunbata zela, baina bai zera!. Berehala ikusi nuen handik printzesaz jantzitako neska bat irteten, eta kabituz ezinean zegoen ama atzetik.

E

Ikuskizuna amaitu zelakoan nengoen, baina oraingoa ere inuzentea ni. Pastelarena etorri zen gero. Eta azkenean, gizonentzako purua eta emakumezkoentzat erregali *horteroena*. Noraino iritsiko ote dira hurrena ondokoarena baino handiagoa giteko!

D

ORDENA EGOKIA:

1. _____ 2. _____ 3. _____ 4. _____ 5. _____

IZENBURUAK

ASPALDIKO URTEAK BAI ONAK!

ESKONTZAK JAUNARTZEEN PAREKO

PRINTZESAK ETA MARINELAK

Testuaren gertaerak kronologikoki kontatu ditu kazetariak. Saiatu Jone Larrañagak idatzitako testuaren sekuentziak kronologikoki zehazten taularen lehenengo zutabearen. Amaitzeko, zuen kronikarako bildu duzuen informazioa kontuan hartuta, alboko zutabearen idatzi gertaerak ordena kronologikoan egituratzeko egin daitekeen sekuentziazio posiblea.

JONE LARRAÑAGAREN TESTUAREN SEKUENTZIAK	GURE KRONIKAREN SEKUENTZIAK
Mezan _____	
Bazkarian _____	
Goizean goizetik _____	
Aspaldiko urte hauetan 1	
Bazkari ostekoa _____	

11. jarduera. Kronikaren ardatz kronologikoa

Kontakizunaren ordena kronologikoa adierazteko, komenigarria izaten da denboraren ardatzari erreparatzea. Beraz, kontakizuna ondo lotzeko, kronikan ondo erabili beharko dituzue denbora antolatzaileak eta denborazko perpausak.

11.1. ariketa

Binaka, koka itzazu eta markatu 9. eta 10. jardueretako testuan ordena kronologikoa adierazten duten hitz eta esamolde guztiak edo gertakizunetako denboraren egoerari buruzko aipamenak. Idatzi taulatxoan.

12. testua	13. testua



11.2. ariketa

Ondoren dituzuen denborazko testu-antolatzaileak eta denbora adierazteko esamoldeak txertatu *Jaien kronika* testuan

Hasieran	azken momentura arte	17:00 inguruan
Ondoren	10an	Gau inguruan
9an	Azkenean	Beranduago
azkenean	Lehenagoko	Hortik aurrera
Azkenean (errepikatuta??)	atzo	

14. testua

Jaien Kronika

Hondarribiko jaiak amaitu dira, zenbait egunetan parte hartzeko aukera izan dut; azterketetan sartuta nengoen, buru belarri baina azterketak amaitu gogo gehiagorekin hartzen dira jaiak, eta horrela 9 eta 10eko egunak aprobetxatu nituen.

..... kontzertu gaua zegoen, Kalite+Atom Rhumba taldeekin. bertan behera gelditu zen kontzertua euria dela eta, hala ere, hor egon ziren musika jotzeko asmoz, baina segurtasuna zela medio ezinezkoa izan zuten jotzea.

..... berriz, Herri Bazkari Popularra. Sarrerak lortzea zail egon bazen ere, zenbait sarrera lortu genituen eta benetan pena merezi izan zuen. Bazkaria baino poteo eta guzti. Eguraldia ere, ez zen oso fin ibili larunbatean euria hasi zen eta, baina hala ere, tabernaz taberna ibiltzeko aukera izan genuen., herriko talde baten Surfing Rock kontzertua, eta eszena toki nagusian Mal de Ojo eta Kaotiko; Rock and rolla berriro ere.

..... gauzak okertu ziren, Dj-ak udako abestiak jarritz, eta lagun batek esan zidanaren arabera, zenbait "Latin King"ek borrokak sortarazi zituzten berain artean. hara Ertzaintza etorri zela ikusi nuen, horrela lagunekin festa beste toki batzuetan egitea erabaki genuen, han ez baitzegoen gauza txantxetarako. Eta "Kontxa" Hondarribira, egia da pena dagoela Pedreñari gertatutakoarengatik, baina baita zoriona ere Hondarribiak lortutako garaipenarengatik.

<http://www.goiena.net/blogak/29A/44>

11.3. ariketa

Narrazioak ez dira ordena kronologikoa errespetatzen duten testu bakarrak. Prozesuak azaltzen dituzten testuek ere ordena kronologiko argia mantentzen dute, *Gizonezko pixontzi maitea* testuan bezala.



Binaka, irakurri *Gizonezko pixontzi maitea* testua eta azpimarratu bertan agertzen diren denborazko esaldiak egiteko erabili diren partikulak edo esamoldeak. Gero, gaztelaniako elementu edo esamolde baliokideekin lotu eta gaztelaniazko esaldi baliokideak idatzi.

15. testua

Gizonezko pixontzi maitea:

Aspertuta nago zuen putzu usaintsuak garbitzeaz eta putzu gehiago ez egiteko kontseilua jartzea pentsatu dut, zuk kontuan hartuko duzula espero.

- Brageta ireki baino lehen, begira ezazu tapa altxatuta dagoen.
- Txiza egiterakoan, konproba ezazu zure mangeratxoaren direkzioa ondo dabilen.
- Badakit txiza egitea gozagarria dela, baina txiza egitean ez itzazu begiak itxi.
- Zure txiza-errekaren presioa txikiagotzen denean, errepara ezazu direkzio aldaketa.
- Kontuz ibili azkeneko tanta ateratzeko txilibitua astintzerakoan.
- Bukatutakoan begira ezazu putzurik utzi duzun.
- Putzutxo bat ikusi bezain laster, lehor ezazu paperarekin.
- Guzti hau egindakoan eman bonbari.

Badakit txiza egiten ari zinen bitartean irakurri duzula hau guztia eta ia erdia kanpora bota duzula, baina hurrengorako balio izango duela uste dut. Hala espero dut behintzat.

Garbitzaileak

<http://www.santurtzieus.com>

DENBORAZKO ESALDIAK EGITEKO ESAMOLDEAK	EXPRESIONES PARA CONSTRUIR ORACIONES TEMPORALES
..... Adibidea:	AL+infinitivo Ejemplo:
..... Adibidea:	ANTES DE Ejemplo:
..... Adibidea:	DESPUÉS DE Ejemplo:
..... Adibidea:	CUANDO Ejemplo:
..... Adibidea:	TAN PRONTO COMO Ejemplo:

12. jarduera. Lexikoa lantzen

Kronikan, bestalde, lexikoari erreparatu behar diozue eta koherentzia dagoen ala ez aztertu. Alde batetik, astun egiten da hitz bera behin eta berriro errepikatzea kontzeptu bera adierazteko; beste alde batetik, ezin dituzue erreferentziak galdu edozein hitz erabilita. Ben Johnson kanadarrari buruzko kronikan kronikarako erabilgarriak izango diren sinonimoak landuko dituzue.

"Testu koherenteetan, testuan zehar agertzen diren gauzak, pertsonak, erakundeak... (kontzeptuak, alegia) irakurleak eragozpenik gabe identifikatu behar ditu." <http://www.ehu.es>

Prozedura

Binaka, irakurri testua eta azpimarratuko hitzak eta zerrendatuta dituzuenak lotu.

Zergatik, Ben?

OLINPIAR JOKOAK SIDNEY 2000 ZERUTIK INFERNURA, 48 ORDUTAN

Ben Johnson kanadarraren positiboak erabat astindu zituen Seulgo Olinpiar Jokoak
2000/09/05



1988ko irailaren 12an, Seulgo Jokoak hasi baino bost egun lehenago, Juan Antonio Samaranchek honako esaldi hau bota zuen NBOKo bilkura batean: "Dopatzea hiltzea da". Irailaren 24an, Jokoetako probarik handiena jokatu zen: 100 metroak. Aurrez aurre Carl Lewis handia eta Ben Johnson, aurreko urtean Erroman munduko errekorra ezarri zuen gizona (9.83). Ikusmina lilura bilakatu zen lasterkariak helmugara iristean, Ben Johnsonen marka ikusgarria baitzen: 9.79. Johnson atletismoko erregea bilakatu zen, Jokoetako izarra. Baina gutxi iraun zion kanadarrari pozak. Bi egun geroago, Seulgo The Chosun Alba egunkariak Johnsonen positiboa iragarri zuen. Ordu batzuk geroxeago, NBOK albisteak baiezatu eta urrea eta marka kendu zizkion. Zerutik infernura uste baino bide laburragoa dagoela ohartu zen Johnson, eta hanka egin zuen. Desagertu egin zen. Estanozolola aurkitu zioten gernuan, esteroide anabolizante bat. Askok orduan ulertu zuten Johnsonen giharrek lau urtean izandako garapena. Beste batzuen ustez, Ben Johnsonek ordaindu behar izan zituen guztien iruzurrak. NBOK dopinaren aurkako borroka serioa zela erakutsi nahi izan zuen, eta izar handienaren burua moztea erabaki zuen. Seulen beste zortzi positibo izan ziren, baina jendearentzat Johnson izan zen iruzurgile bakarra.

Ben Johnsonen 1984an lortu zuen bere lehen olinpiar domina, Los Angelesen. Baina orduan brontzea eskuratu zuen kirolariak ez zuen zerikusirik handik urte batzuetara Lewis mendean hartu zuen zezenarekin. Johnson, jamaikarra jatorriz, gizen samarra zen gaztetan, eta lagunak zirikek amorratuta, 100 metroetako desafioa bota zion. Johnsonen 11.8ko denbora egin zuen. Charlie Francis entrenatzailea bertan zen, kasualitatez, eta honela esan zion: "Nahi baduzu, txapeldun handia egingo zaitut". Brontzea lortu zuen Los Angelesen. Baina Johnsonen koska pare bat igo nahi zituen podiumean. Gero onartu zuen bezala, orduan hasi zen dopatzen. Bere gorputza erabat eraldatu zen, bere giharrak puztu egin ziren, eta Ben Johnson kirolari arrunta izatetik izar handia izatera pasatu zen bi urtean. Olatuaren aparrean zegoen Johnson. Baina olatua laster lehertu zen, hondoa jo eta inoiz ez zuen burua jasotzerik izan.

<http://www.ikasbil.net/>

SINONIMOAK	
Txizan:	Aditzera eman:
Hazkundera:	Bihurtu:
Engainuak:	Egiaztatu:
Ernegatuta:	Erdietsi:
Lodi:	Erronka:
Biltzarra:	Garaitu:
Iruzurti:	Korrikalariak:
Alde egin	Muskuluek:
Maila:	Altxatzerik:
Zeharo:	Ailegatzean:
Nahiko:	Antzaldatu:
Erreparatu:	




13. jarduera. Bizitako gertaera kontatzen

Orain arte ikusitako guztia gogoratu eta kronikaren lehen zirriborroa idatziko duzue. Kroniken ezaugarri orokorrak (2. jarduera) eta zuen kronikaren ezaugarriak (5. jarduera) kontuan izanik, gero, eginda duzuen kronikaren eskema (10. jarduera) garatuko duzue, koherentzia eta kohesioari buruz ikusitakoa kontuan hartuta.

Hiruko taldean, jarraitu kronika idazteko prozeduran duzuen.

KRONIKA IDAZTEKO PROZEDURA

- ❖ Kronikaren eskema berreskuratu.
- ❖ Irakurri kronika idatzia ebaluatzeko txantiloia, zuzenketarako kontrol-orritzat erabil dezakezue.
- ❖ Idatzi zirriborroa, kontrol-orriko ezaugarriak kontuan izanik.
- ❖ Berrikusi zirriborroan idatzitakoa.
- ❖ Beste talde bateko ikaskideekin trukatu zuen zirriborroa.
- ❖ Ikaskideen zirriborroa aztertu ea koherentzia, kohesio edo zuzentasun akatsik ikusten duzuen, eta hobetu daitezkeen alderdiak markatu.
- ❖ Irakasleari erakutsi zuen zirriborroa, hark zuek egindako lana baloratu eta zuzenketak iradoki ditzan.
- ❖ Zuzenketak egin eta testua berridatzi.



KRONIKA IDATZIA EBALUATZEKO TXANTILOIA	BAI	EZ
• Izenburu erakargarria du, aditz gabea		
• Kronikaria lekukoa da		
• 6 Wak agertzen dira		
• Pentsamenduak eta sentimenduak interpretatu ditu		
• Informazioa ondo antolatuta dago paragrafotan		
• Helarazi nahi duen informazioa kronologikoki eta era egokian antolatuta dago		
• Adizki egokiak eta iragana erabiltzen ditu		
• Denbora-antolatzaileak ondo erabiltzen ditu		
• Lexikoa informazioa interpretatzeko helburuari begira ondo aukeratuta dago.		
• Gramatikalki zuzena da		
• Ortografia eta puntuazio egokiak ditu		
• Sinatuta dago		



4. LAN-SEKUENTZIA NARRAZIOEN DRAMATIZAZIOA

Irrati-kroniken entzuleek ez dute kronika behin eta berriz irakurtzeko aukerarik. Hori dela eta, ahozko kontaketa egiterakoan zuen istoriotxo argi azaldu behar diezue entzuleei eta baita istorioak duen xarma hori transmititu ere. Nola? Ea lan-sekuentzia honetako jardueren laguntzaz lortzen duzuen.

14. jarduera. Irrati-nobelak

Entzun birritan ikasbil.net gunetik ateratako irrati-nobela hau, eta gero, binaka, ondoko txantiloia bete. Entzuten hasi baino lehen, irakurri txantiloia.



[Etsaiak etxe barruan](#)

[Transkripzioa ikusi](#)

ETSAIAK ETXE BARRUAN

Non:

Noiz:

Istoria labur:

.....

.....

.....

.....

.....

Pertsonaiak:

.....

.....

Narratzailea: aukeratu bat

☐ narratzaile orojakilea

☐ narratzaile lekukoa

Istoriaa ikusten ari garela ematen du ezta? Zeren menpe dago irudiak ere transmititzeko gaitasun hori? Nola lortuko dugu esatari trebeak izatea, hau da, gure kronikaren intentzio eta esanahi guztiak helaraztea, irrati-nobela horretan egiten duten legez?

15. jarduera. Esatari onaren ezaugarriak

Taldeka, irakasleak emandako [txarteltxoetako](#) ideiak ordenatu honako koadro honetan. Ondo arrazoitu itzazu, gero, guztion artean esatari trebearen ezaugarriak bateratuko dituzue eta.

ESATARI TREBEA 1. 2. 3. 4. 5. 6. ...	ESATARI ESKASA 1. 2. 3. 4. ...
EZ GARA ADOS JARRI 1. 2. 3. ...	EZ DU ERAGINIK 1. 2. 3. ...



16. jarduera. Dikzioa hobetzeko ariketak

Zer da dikzioa? Hitzen ahoskera egokia.

Aktoreek eta hizlariak ahoskera egokia izan behar dute; horrela, entzuleei helarazi behar dieten mezua argi eta garbi helduko da.

Dikzioa hobetzeko, gimnasia-ariketak egin behar dira mihiaz, ahoko gihar hori sendotzeak asko laguntzen baitigu hitzak hobeto ahoskatzen. Ariketak maiztasunez egiteak on egiten die irrati-telebistako esatariei.



Jarri bikoteka eta ahalegindu honako ariketa hauek egoki egiten, eta markatu ongi edo gaizki egiten dituzuen. Zure bikoteak esango dizu behar den bezala egiten dituzun.

DIKZIO ARIKETAK	Kideak	Nik
1. Mihia ateratzea eta gordetzea, ahalik eta arinen.		
2. Mihia atera eta gogor eta zorrotz jartzea.		
3. Mihia nasai uztea, hots, bigun eta lasai.		
4. Mihia ahoaren eskuineko eta ezkerreko aldetik ateratzea.		
5. Mihia zeharo atera eta, behin hori eginez gero, ahoaren mutur batetik bestera higitzea, ezpainak zabal-zabalik ditugularik.		
6. Ezpainak itxita, mihia ateratzen ahalegintzea.		
7. Mihia sudurrerantz eta kokotserantz eramatea.		
8. Boligrafoari mihiaren eta goiko ezpainaren artean oratzea.		
9. Boligrafoari haginekin oratzen diogula, edozein testu ahots goraz irakurtzea.		

17. jarduera. Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan

17.1. ariketa. Intonazioaren garrantzia ahozko testuetan.

Binaka jarri eta esan honako hauek zure albokoari:

Ongi egingo duzu.

Ongi egingo duzu!

Ongi egingo duzu?

Intonazio berarekin esan al dituzu? Zergatik?

Binaka, irakurri honako txantilo honetan dauden adibideak. Gero, bata besteari esango dizkiozue, baina ahalegindu intonazio egokia erabiltzen adibide bakoitzerako. Amaitzeko, adibide gehiago asmatu edo bilatuko dituzue hemerrotekan, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.



INTONAZIOA ETA PUNTUAZIO-MARKAK

Ahoz komunikatzen garenean, garrantzia ez du bakarrik esaten denak, nola esaten den ere oso garrantzitsua da. Hitz egiten dugunean, beharrezkoa da intonazio egokiz egitea, entzuten digunak mezua ongi uler dezan. Puntuazio-markek testu idatziari dagokion intonazioa adierazten digute.

KOMA: *argazkiak, irudiak, hitzak eta sentimenduak bata bestearen atzetik pasatu zaizkit, film batean bezala.*

Orokorrean, komak dauden lekuan, intonazio-kurbak gora egiten du.

Adib. _____

PUNTUA: *Athletic eta Real Madril. Lehen Mailako klasiko handia.*

Intonazio-kurba behera doa.

Adib. _____

BI PUNTUAK: *Artikuluak hauxe dio: ezin da ikastetxera etorri edozelan.*

Intonazio-kurba esaldiaren arabera da.

Adib. _____

ETEN PUNTUAK: *Kepa, Amaia, Leire... denak zeuden bertan.*

Intonazio-kurba mantendu egiten da.

Adib. _____

HARRIDURA IKURRA: *Hau festibala!*

Intonazio-kurba hasieran igo egiten da eta gero jaitsi.

Adib. _____


GALDERA IKURRA: *Joango al gara etxera? Zer irрати entzuten duzue?*

Intonazio-kurbak gora edo behera egin dezake.

Adib. _____

Zer gertatzen da gaztelaniaren intonazioarekin?


Binaka, irakurri [Los signos de puntuación](#) testua eta atera puntuazio-marka bakoitzari dagokion intonazio-modua. Testu honetan puntuazio-marken erabilera egokiari buruz irakurriko duzuenak gaztelaniako erreportajea ondo kohesionatuta idazteko balioko dizue.



Eta ingelesez nola erabiltzen diren jakiteko, begiratu honako helbide hau:
<http://en.wikipedia.org/wiki/Punctuation>

17.2. ariketa. Ahoskatzerakoan euskaraz egiten diren aldaketa fonetikoak

Beginatu ingelesez dauden honako hitz hauek:



Ahoskera eta idazkera bat al datoz?

Euskaraz ere antzekoa gertatzen da hitz egitean: hainbat hitz elkartu egiten ditugu, beste era batera ahoskatuz.

Prozedura

Taldean, aztertu nola ahoskatuko zenituzketen honako esapide hauek eta zein silaba indartzen duzuen gehiago:

IDATZI	AHOSKATU	IDATZI	AHOSKATU
ez zion		zeuk dakizu	
ez dago		hil zen	
ez nekien		etor zaitez	
ez luke		maila	
izan zen		mutila	
ez badu		mina	
ez gara		baina	
ez dut uste		ehun eta bi	
...			

Hainbat erantzun egon daitezke, baina kontuan izan erantzunek koherenteak eta naturalak izan behar dutela beti zuen inguruko euskararen aldaerarekin.

17.3. ariketa. Irakurketa espresiboa

Hemen dituzuen kronikak, agian, oso literarioak dira, baina erabilgarri izango zaizkizue azken ekoizpenari eman behar diozuen bizitasun-puntua praktikatzeko.

2006ko martiaren 13a, astelehena

Emozionatzeko ez da urrutiegi apuntatu behar

Urteak neramatzan Anari kontzertuan ikusi barik, "Anari" (1997) lehenengo disko hura atera zuenetik: Kafe Antzokian eta Algortan ikusi nuen orduan.

Ostiralean ikusi nuen Anari kontzertuan, 8 edo 9 urte pasatu eta gero. Elorrioko Arriola Antzokian izan zen: ez ahazteko moduko kontzertua. Ahotsa apur bat kraskatuta zuela hasi zen kantuan, eta kontzertua amaitzerako erabat zeukan ahotsa hautsita. Une batzuetan sufritzen ibiliko zela pentsatu nuen, eta ez dakit sufritu zuen edo ez, baina entzulearentzat zoragarria izan zen, kantaria amildegiaren ertzean ibili baitzen denbora guztian, arriskatzen, bere kantuen bertsioak egiten, hitzak agoniarraino luzatzen, oihiu egiten eta esaten ari zen guztia bizitzen. Bai, dudarik gabe, asko arriskatu zuen kontzertu osoan. Eta ondo irten zitzaion, itzel. "Inoizko erotikoen", esan zidan Peru Magdalena lagunak, kontzertua amaitzean.

Eta halaxe izan zen: kontzertu sentitua, arriskutsua, barru-barrukoa, *bestiala*. Arriola aretoan 200 lagun inguru bildu ginen, kanpoan "eguraldi txarria", Anarik esan zuen moduan. Disko berriko kantu guztiak jo zituen, eta aurreko bi diskoetako beste 7 edo 8 abesti. Soinu aldetik arazo txiki batzuk egon ziren, eta kontzertuaren hasieran iruditu zitzaidan soinua apur bat saturatuta zegoela, baina huskeriak baino ez ziren izan.

Anarik berba gutxi egin zuen kontzertuan (taldekideak ere ez zituen aurkeztu): laugarren abestiaren ostean, kontzertuaren erdialdean, eta amaieran baino ez zuen berba egin, baina, horren ordainetan, kontzertuari erritmo bizi-bizia eman zion, ia tarterik ere utzi gabe abestien artean. Alde batetik, faltan bota nituen hitz batzuk, azalpenen bat, biluztasunen bat (diskoa biluztasun nahikoa bada ere), baina, bestetik, eskertzekoa izan zen musika eta talentu zurrumbilo hura. Izan ere, talde osoaren sendotasun elektrikoaren barruan zein bakarka eta zerraren soinupean kantari, Anari *marabilla* bat da. Anari, gitarra elektrikoa zintzilik duela, dagoen piztiarik erakargarriena da.

Eta martxoaren 30ean, Bilboko Kafe Antzokian. Ez harritu han ikusten banauzue berriro, emozionatzeko prest, urrutiegi apuntatu beharrean barru-barrura apuntatzen duen Anariri begira.

Julen Gabiria
MOLDATUA



<http://7mirariak.blogspot.com/2006/12/komunean-gertatutako-hilketa.html>

2006/12/11

Komunean gertatutako hilketa saihestezin baten kronika

Urteen poderioz arrakalatutako hormaren zirrikitutik irten zen, **gauaren babesaz** baliatuz. **Bere oskol beltzaren distira nabarmenduta** ageri zen leihotik sartzen zen ilargiaren argiaz eta zomorroa noraezean ibili zen denbora zehaztugabea, haizearen norabidea ezin dezifratuz, ezin ulertuz toki itxian airearen kondentsazioaren zentsua.



Estolderia paradisua atzean utziz eta jakin-minak bultzatuta hartu zuen bizilekua lagatzeko erabakia. Kanpoan zer aurkituko zuen zain. Imajinatutako kirasdun zoldazko kalea ezerezean gelditu zen eta zurtuta, labezomorroak, faltan bota zituen kakaz betetako hodiak. Desinfektatzailearen eraginez atrofiatutako usaimenak ez zion mesederik egin eta itzulera ezinezkoa egin zitzaion. Itolarria eta zorabioa sentitu zituen jarraian eta halako zoramen ulertezin bat jabetu zen hartaz. Milaka bira eman zizkion gelari, eta bat-batean, argi itsugarri bat piztu zen.

Gizonak segituan pausatu zuen begirada berarengan eta mamorroak sortzen zion higuina zertan ezkutatzeko beharrianik gabe hurbildu zen. Zapaltze mortal batez akabatu zuen. Erraiak komuneko zoruan zehar geratu ziren sakabanatuta. Bere zereginak amaitu eta gizona lasai asko oheratu zen berriz ere, argia itzaliz eta gertatutakoa ametsa bailitzan. Zeharo ezdeusa. Momentu hartan hil zen gizakiaren ontasun apurra, inoiz haren jabe izan bada behintzat. Labezomorroaren kuriositatea asinatzeagatik gure arima maltzurkeriaz pozonduta egotera kondentatuta dago geroztik. Xehetasun hutsalak bazterteagatik. Sozialki horrela onartu delako begi bistan min egiten duena suntsitzeagatik.

Publikatzailea: Ane Araluzea

Taldeka, testu bietatik bat aukeratu eta aldaketa fonetikoak, silaben estresa eta intonazioa adierazi testuan bertan. Amaieran, taldekide bakoitzak beste testua aukeratu duten talde bateko lagun bati irakurriko dio.

Horretarako, TESTU BAT MODU ADIERAZKORREAN IRAKURTZEKO PROZEDURARI jarraitu. Gero, zuk entzun nola irakurtzen duen berak bere testua.



Irakurketa-jardunak grabatzen badituzue, haiek entzun eta zuzendu beharrekoak zuzentzeko aukera izango duzue. Horrela, azken ekoizpenera begira hainbat akats zuzentzeko aukera izango duzue.

TESTU BAT MODU ADIERAZKORREAN

IRAKURTZEKO PROZEDURA

- ❖ Hasteko, istorioa behin eta berriz irakurri behar da isilean, haren esanahiaz zein egoeraz ondo jabetu arte.
- ❖ Istorioa argi eta garbi irakurri eta kontatu behar da, hitz bakoitzari dagokion ahoskera emanaz. Beraz, kontuz ahopeka esandako hitzekin.
- ❖ Kontuan izan testu bat ahots goran irakurtzean hitzak ez direla idatzita dauden bezala ahoskatu behar; izan ere, hainbat hitz elkartu egiten dira, eta elkarketa horrek aldaketa fonetikoak egitea dakar.
- ❖ Irakurketaren erritmoa egokia izan behar da. Hasteko, egin itzazu proba batzuk zeure kabuz, eta gero zure taldeko kideak izan daitezke entzule.
- ❖ Ez da oihuka irakurri behar. Garrantzitsua da ahotsa ez behartzea, baina ez da ahopeka irakurri behar. Ahotsaren intentsitatea narrazioaren arabera aldatu beharra dago.
- ❖ Intonazioari dagokionez, berriz, testu idatzian dauden puntuazio-markei erreparatu behar zaie lehenik; izan ere, haiek adierazten dute noiz esan zerbait galdera edo harridura moduan, noiz egin etenak, etab.
- ❖ Baina marka horiez gain, bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat; intonazioaren bidez haxe adierazi behar da: testuaren tonua (serioa, ironikoa...). Aukeratutako testua era neutroan irakurri zure ikaskideari. Ondoren, dagokion tonua aukeratu: tragikoa, barregarria...

Zure eskuak
aurpegia..., gorputz
osoa erabili
irakurketa



IRAKURKETARAKO EBALUAZIO-ORRIA	
Hitzak ondo ahoskatzen ditu.	
Ez du hitz ulertezinik esaten, ez du ahopeka inork ez ulertzeko moduan hitz egiten.	
Erritmo egokia, aldatu egiten du behar denean.	
Bolumen egokia, aldatu egiten du behar denean.	
Puntuazio-markak jarraitzen ditu.	
Intonazioa egokia, aldatu egiten du behar duenean.	
Aldaketa fonetikoak egiten ditu hala behar denean.	
...	

Zelan atera zaizue irakurketa? Lasai, oraindik hobetzeko moduan zaudete eta.



5. LAN-SEKUENTZIA IRRATI KRONIKA GRABATZEN

Ia lortu dugu. Azken ahalegina egitea geratzen zaizue: idatzita duzuen kronika grabatzea.

18. jarduera. Kronika ahozko jardunerako egituratzen

Euskaraz, normalean, erdaraz ez bezala ordenatu ohi ditugu perpausaren osagaiak. Izan ere, euskaraz ordenarik ohikoena Subjektua-Osagarria-Aditza dugu; hau da, aditza perpausaren amaieran jartzen da. Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, ordea, hurrenkera hori ezohikoa ez ezik, okerra ere bada.



Hala ere, perpausaren hitzak era askotara ordena ditzakegu informazioari tratamendu ezberdina ematen badiogu, hau da, informazioak duen garrantziaren arabera.



EUSKARA IDATZIA

da.

Esan genezake euskaraz perpausaren osagaiak, normalean, duten garrantziaren edo eman nahi zaien garrantziaren arabera ordenatzen direla; osagai garrantzitsuena (galdegaia) aditzaren aurrean jartzen

Euskara mintzatuan, oro har, askatasun handixeagoa dago hitzak ordenatzerakoan.

EUSKARA MINTZATUA

Idatzian ez bezala, intonazioaren bidez azpimarra daiteke galdegaia, eta normalean, azken esaten dena hobeto gogoratuko dugulako atzeratu egiten dugu galdegaia.



Prozedura

Binaka, aztertu arretaz Pou anaien erreskate lanari buruzko kronikaren honako zatitxo hau. Azpimarratu esaldi bakoitzeko informaziorik garrantzitsuen eta erabaki non agertu beharko litzatekeen idatzizko testu batean.

...azkenean, denen artean lortu zuten hiru frantziarrek onik erreskatatzea. Hura bai hura garaipena.

Musika

Zapore mingotsa gerorako gertakariak utzi diete egia esan. Asteazkenean, Rio Blanco kanpamenduan hartu zuten atsedena, eta ostegunean, joan zeneko ostegunean, erabaki zuten Paso Superiorra igotzea. Hurrengo egunerako azken ahaleginaren itxaropena gordeta, nekeak jota, erreskate jardunagatik eta eguraldi iragarpen txarrarekin, baina hala ere gora. Osteguna zen eguraldi oneko eguna, hainbat eskalatzaileek ondo probestu zuten gailurrera irizteko. Hainbat horien artean, asko ziren aurreko egunean erreskatean parte hartzeari uko egin ziotenak.

Musika

Bada, gora igo ziren, Eneko eta Iker bai, baina alperrik. Ostiralean, eguraldiak berriro okerrera, eta hartatik, amore eman behar...

Ba al dago idatzizko testu arruntetan agertzen ez den beste ezaugarririk?

AHOZKO TESTUEN EZAUGARRIAK

1. Esaldiaren ordena aldatuta: garrantzizko informazioa atzerago
2. ...
3. ...
4. ...

Ahozko kontaketa ekintzak dira nagusi, esaldi laburrak eta deskribapen gutxi egotea komeni da, ekintzak jarraitzeko beharrezkoak direnak soilik.



19. jarduera. Praktikatzen

Heldu da zuon kronika emanaldirako ordua. Horretarako, honako prozedura honi jarraitu:

IRRATI KRONIKA EKOIZTEKO PROZEDURA

- ❖ Ekoiztutako kronika **berreskuratu**.
- ❖ Saioa **planifikatu**: hiru taldekideen eginkizunak argitu (aurkezlea eta kronikariak).
- ❖ Kronika eta kronikarien aurkezpena **prestatu**.
- ❖ Kronika idatzia ahozkorako **eraldatu**.
- ❖ Nola esan **prestatu**: praktikatu elkarketa fonetikoak, intonazioa, pausaldiak eta abiadura.
- ❖ Zure kontaketa **barneratu**. Nahiz eta aukera izango duzun irakurtzeko, askoz sinesgarriagoa izango da oinarritzkoa gogoratzen baduzu eta entzulea aurrean izango bazenu legez aritzea.
- ❖ **Kontatu**: denek entzuteko moduko tonuan mintzatu eta hitz egin patxadaz, azkarregi arituz gero entzuleek ez baitute ezer jasoko.



Hasi praktikatzen! Lehenengo, talde barruan, eta gero, beste talde baten aurrean aritu.

Beste taldeko kideek kronika emanaldia ebaluatzeko txantiloia erabiliko dute zuen ekitaldia aztertzeko. Txarto egin duzuen hobetzeko iradokizunak ere proposatuko dituzte. Ondoren, zuek beste talde baten lanari buruzko iritzia emango duzue.

IKASKIDEEN IRADOKIZUNAK

20. jarduera. Entzuleentzat grabatzen

Heldu da irrati kronika grabatzeko momentua, aukera izanez gero, [Audacity](#) programa erabil dezakezue grabaketa egiteko.

Zuek egin ez dituzuen irrati kronikak ebaluatzeke, jarraian dagoen txantiloia erabili. Jarri gurutze bat dagokion erantzunaren azpian.

KRONIKA EMANALDIA EBALUATZEKO TXANTILOIA			
TALDE LANA	BAI	EZ	
1. Denbora jakin batean eta toki jakin batean gertatu diren ekintzak kontatzen ditu. 2. Berriak gaurkotasuna du (orduak momentuan). 3. Era polit eta entretenigarrian kontatzen du. 4. Esataria lekuko edo protagonista da. 5. Koherentea da: ondo egituratuta... 6. Kronologikoki kontatzen du. 7. Esatariaren interpretazioa agertzen da. 8. Hizkera bizia eta jatorra, ondo kohesionatuta: adizki egokiak, lexiko aberatsa, ikasitako esamoldeak 9. Diskurtsoa egoki lotuta: lokailuak, testu-antolatzaileak... 10. Zuzentasunari lotutako akatsik? Aditzak, perpausak... 11. Ahozkorako ondo egokituta, jarraitzeko erraza. 12. ...			
TALDEKIDE BAKOITZAREN LANA	1.	2.	3.
13. Ahoskera egokia. 14. Denek entzuteko moduko bolumena. 15. Abiadura egokia. 16. Etenaldi egokiak. 17. Dramatizazioa, tonu aldaketak behar direnean. 18. Kontaketa barneratuta, ez zuzenean irakurria. 19. Elkarketa fonetiko egokiak. 20...			



Autoebaluazioa

UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?
 - Narrazioen ezaugarriak
 - Kronikaren ezaugarriak
 - Gertaerak kontatzeko erak
 - Kronika kontatzeko prozesua
 - Testua kohesionatzeko baliabideak
 - Ahozko narrazioen gakoak
 - ...
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zein jarduera kostatu zaizu gehien?
4. Zein jarduera kenduko zen(it)u(z)ke?
5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez eguneroko bizitzarako baliagarriak diren gauzak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea?
 - Unitatearen edukiak:
 - Erabilitako metodologia:
 - Erabilitako materialak:
 - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?
Iradokizunak: